PRENTSA TXOSTENA



Zinegin elkartea
zinegin@gmail.com
Eihartzea kultur etxea, Hazparne

SAR HITZA

Zinegin festibalaren azken edizioko hitzak haizeak barrez eraman zituen.

Historia piska bat. 1956tik, euskal zinema, euskarazko zinema, Gure sor lekuatik etorri zaizu, isil-isilik. Haritz Barne zinegelatik. HAIK-ek dizu salatu. Zerek? Hazparne Aldeko Irakurketa Klubak, ate joka jin zaizularik. ZERGATIK PANPOX galdegin dizu, Et‘abar...

Geroztik, ez zara Hazparnetik lekutu. Zinegela zaindu duzu urte osoan harribitxi baten esperoan, baina urrezko purruskak baizik biltzen ez dituen SU LAMINA zara.

Aurten, 2026an, berriz hortxe plantatu zara, hau nire tartea da, aldarri eginez. Baina zinemaren hitza etetea erabaki duzu euskararen hitza entzunarazteko, Euskal konfederazioaren azaroaren 21eko Euskararen garaia da deiarekin bat eginez.

Euskarak eta zinemak batera gero bat ukan dezaten. Punttuka, oinak garagardotan xerkatzen, zein da zure filmarik maiteena galderari erantzunez, xuria den atean.

Nahiz eta bakartasunak jaten zaituen maiz, IZARREN ZAUNKA entzunen duzu, HOGEITA BAT URTEZ iraindu zintuzten arren, zarena izaten segituko duzu.

Eihartzeatik atera zara, eta bidean, MUGURUZA FM TOUR 40 irratia piztu duzu eta entzun Hartu hitza, hitza har dezagun!

AITA BATEN SEMEAK nola egin behar du aitari eman hitza ez jateko berea eraikiz, gizaldi eta gizaldietan, hemen.

Zinegin elkartea
zinegin@gmail.com
Eihartzea kultur etxea, Hazparne

POTASIO! Mintzo zarelarik ez dizute kasurik egiten! Eskola garaitik gertatzen zitzaizun zuri, NORTARZUNA hala zenuen eraiki. MUSKUILU! Botatzen zizuten.

Oroitzapenek mindua, GUTUN BAT KOTTORI idazteko asmoa piztu zaizu.

Erranaldiak josteko artean, arrastak laxatu eta, BLU KOLEKTIV entzutean, dantzan hasi zara. Punpeka, gela iluneko jargi gorriraino joan zara, FARTSA BATEN LEHEN NOTAK gozatu dituzu, zeren, zeren, MUNSTROAK SORTZEN DIRENEAN, ilunpean, tarteka irri egiten baituzu.

Zenbat eta laburragoa orduan eta merkeagoa, entzun duzu, baina zure bihotzak ez du mugarik. Pott ematen diozu zure ondokoari. PUAH!

GURETAKO EZTIA garrantzitsua da, elkarlanez ekoiztua, polifonian. PETRA COMETE bezala, airatu zara.

Berriz ere, zin egin duzu.

ESKERRAK

Milesker urte guzian Haritz Barne zinema-gela kudeatzen duen Zabalki elkarteari, festibalari harrera egiteaz. Esker mila sustengua ekartzen diguten instituzioei, EKEri, Hazparneko Herriko Etxeari, Departamenduari, Euskal Elkargoari, Lekeitioko Zinebilera festibalari baita urtero laguntzen gaituzten Hazparne inguruko enpresa pribatuei ere. Esker bereziak ere Ttattola gaztetxeko kideei, ekartzen diguten laguntzaz. Milesker denei, 2012tik, urtez urte, hegalak zabaltzeko ahalak emateaz.

Zinegineko pinpirinak
zinegin@gmail.com

Zinegin elkartea
zinegin@gmail.com
Eihartzea kultur etxea, Hazparne

OSTATUA

Ostegunean, larunbatean, igandean eta astelehenan, Haritz Barne zinemako atarian ostatu bat izanen da jateko eta edateko.

Janaria proposatuko da Xalbador kolegioarekin partaidetzan.

KOKAPENA

Filmen proiekzio lekua
HARITZ BARNE ZINEMA GELA
Haritz Barne karrika 6 – 64240 HAZPARNE

Larunbat arratseko kontzertuak
TTATTOLA GAZTETXEA
Harana Plaza, 1 – 64240 HAZPARNE

Erakusketa Interaktiboa
Choribit gela
St Jean plaza

PROGRAMAZIOA

ASTEAZKENA 11/18



18:30 HARRI KANTA ERAKUSKETA INTERAKTIBOA

Egilea: Juliette Lizotte

Sinopsia
Errealitatearen eta fikzioaren artean, (pre)Historia eta istorioak, Harri Kanta Euskal Herriko historia alternatibo baten muineko bidaia da. Ikusentzunezko instalaziok aukera anitzeko istorio bat proposatzen du, non ikusleak botoiak sakatuz bideo batetik bestera nabigatzen duen.

Erakusketa CHORIBIT gelan ikusgai, igande arte. Aurkezpena asteazkenean 18:30tan.

Ordutegiak:

Asteazkenean (18:30 - 20:30)
Ostegunean (16:00 - 20:00)
Ostiralean (16:00 - 20:00)
Larunbatean (10:00 - 15:00 ; 18:00 - 20:00)
Igandean (12:00 - 19:00)

Jateko eta edateko

PROGRAMAZIOA


OSTEGUNA 11/19

19:00 FILM LABURRAK: KONDAKIZUN ZORAGARRIAK
Iraupena :30’



GURETAKO EZTIA
Zuzendaritza: Maia Iribarne, Violette Belet
Euskarazko azpitituluekin

Sinopsia
Ikertzaile, erlezain eta haur talde baten arteko topaketen bidez, Euskal Herrian erleek heriotzarekin izan duten lotura kondatzen eta kantatzen du Guretako Eztia filmak.



IZARREN ZAUNKA
Zuzendaritza: Nagore Eceiza
Euskarazko azpitituluekin

Sinopsia
Bi lagun Larraitzen daude, Mikel Saez de Urabainek Txindoki mendian sortu berri duen bide bat eskalatzeko asmoz. Mikelek berak, bide berria izendatzeko inspirazioa aurkitu nahi du tokiko bake eta lasaitasunean. Iker Urangak, berriz, bere min kronikoetatik eta antsietatetik askatzea lortu nahi du.

PROGRAMAZIOA

OSTEGUNA 11/19

20:00 MUGURUZA FM 40 TOUR
Zuzendaritza: Fermin Muguruza, Ander Merino
Iraupena :103’
Zuzendariaren presentzian
Euskarazko azpitituluak



Sinopsia
Lehen aldiz eszenatoki batera igo eta lau hamarkada geroago, Fermin Muguruzak eskala handiko bere azken birari ekin dio: 40 urteko musika, konpromiso eta erresistentzia kulturala ospatzeko bidaia kolektiboa. Dokumental musikal honek ibilbide horren pultsua jasotzen du, Kortatu eta Negu Gorriak taldeetatik hasi, gaur egungo bakarlari ibilbideraino.

OSTIRALA 11/20

XuriAtean

19:30 ZINE BERTSO SAIOA

Sinopsia
Irisarriko helduen eskolako bertsulariekin: Peio Minhondo, Jean Marie Oillarburu eta Gus Elizondo. Irudia eta bertsua nahasiko dituen saioa! Jateko eta edateko ostatuan berean.

PROGRAMAZIOA

LARUNBATA 11/21



10:00 GUTUN BAT KOTTORI
Zuzendaritza: Garazi San Martin Solano
Iraupena: 97’
Zuzendariaren presentzian
Euskarazko azpitituluenkin

Sinopsia

Kotto zurgina zen, futbol eta mendizale amorratua, herriko kultur bizitzan parte-hartze aktiboa izan zuen, eta zinegotzi ere izan zen. Haren bizitza, ordea, atxiloketek, tortura-salaketek eta espetxe-esperientziak markatu zuten. 2005eko urriaren 31n, bere buruaz beste egin zuen Soriako espetxean, bigarren espetxeratzea gertatu eta egun gutxira. Lekukotasun pertsonalen eta artxiboko materialen bidez, dokumentalak Kottoren giza alderdia eta haren heriotzaren inguruabarrak aztertzen ditu. Horrez gain, torturaren, espetxe-politikaren eta memoria kolektiboaren inguruko hausnarketa proposatzen du.

Jateko eta edateko filmen artean



14:00 FILM KLASIKOA: ZERGATIK PANPOX
Zuzendaritza: Xabier Elorriaga
Iraupena: 57’

Sinopsia

Arantxa Urretabizkaiaren eleberrian oinarriturik, seme bat duen hogeita hamar urteko emazte ezkondu baten bizimodua kontatzen du. Bereizi direnetik, protagonista gogoetan ari da: zergatik utzi zuen senarrak, Txemak, bakarrik semearekin? Barne-bakarrizketen bitartez, hainbat gai aztertzen ditu; besteak beste, amatasuna, bakardadea eta 70. hamarkadaren amaierako euskal gizartearen eguneroko bizitza.

HAIK taldearekin partaidetzan!

TTATTOLAKO GAUALDIA

LARUNBATA 11/21

20:30 GAZTETXEKO GAUALDIA







BLU KOLECTIVE

Blu Kolektivek, Hego Amerikako underground eszenako sorkuntza egiten du, non erritmoa gordina den eta musika aldarriendako hizkuntza. DJ kolektibo honek musika beltzaren genero ugari fusionatzen ditu, saio sakon eta hipnotikoak sortuz. Saio bakoitza bidaia analogiko eta organiko bat da.

SU LAMINA

Bateria azkarregia, gitarra apala astunegia eta intentsoegiak diren bi abeslari. Su Lamina taldearentzat gehiegi ez da nahikoa, batez ere eszenatokia sutan jartzeko orduan. Aiherrako punk taldeak Ttattola inarrosiko du.


PETRA COMETE

Petra Comete teknoa deskubritzeko bidaia da. Emazte, kuir pertsona eta koloreko pertsonen sorkuntzak argitan ezartzen dituen DJ set melodiko eta erritmoduna da. Eurodance-tik trans estilora eta gehiago ere.

PROGRAMAZIOA

IGANDEA 11/22

09:30 <u>HAUR TTIPI ETA HANDIEN SAIOA</u>
Iraupena: 40'



PUAH!
Zuzendaritza: Loïc Espuche
Euskaraz bikoiztua

Sinopsia
Ezpainetan musu egitea... ze nazka! Puah! Leo ttikiari ez zaio batere gustatzen horrelakorik ikustea. Baina Lucie neskatxa ezagutuko duenean iritziz aldatuko du.

MUSKUILU
Zuzendaritza: Nicolas Hu
Euskaraz bikoiztua

Sinopsia
Nora, 9 urteko neska gaztea, berriki Bretaniako irla batean instalatu den amarekin bizitzera doa. Iristen denean, Nora ohartzen da irlako ume guztiek betidanik elkar ezagutzen dutela eta denek bela egiten dutela! Baina amak bela-klubeko kurtsoak ezin ditu ordaindu...



PROGRAMAZIOA

IGANDEA 11/22

10:45 MUNSTROAK SORTZEN DIRENEAN



Zuzendaritza: Diario Sozialista
Iraupena: 80’
Zuzendarien presentzian
Euskarazko azpitituluekin

Sinopsia

Faxismoa ez da iraganeko kontua. Gaur egun, mundu mailan, mugimendu honen gorakada bizitzen ari gara. Dokumental honen bidez, Europako mugimendu faxista berriaren adierazpenak aztertzen dira, baita indar handiz berriz agertzearen arrazoiak ere. Azterketa hau ikuspegi antifaxista batetik egiten da, Europako hainbat lekutako kazetari eta militanteekin hitz eginez, eta egungo zein etorkizuneko borroka antifaxistarako zenbait gako proposatuz.

16:00 FILM LABURRAK: <u>HUMOREZKO SELEKZIOA</u>
Iraupena: 38’



FARTSA BATEN LEHEN NOTAK
Zuzendaritza: Pette Etxebarria
Zuzendarien presentzian

Sinopsia

Potret grotesko bat.



AITA BATEN SEMEOK
Zuzendaritza: Goizane Castillo Aranga
Euskarazko azpitituluak

Sinopsia

Juan Calvo Mustatxegi enpresa handi baten buruzagia hilt berri da. Ehorzketetan, gizonaren seme ezkutuak hurbiltzen zaizkio emazte alargunari.



POTASIO
Zuzendaritza: Josu Martinez
Euskarazko azpitituluekin

Sinopsia

Joseba Potasiok ez daki zer gertatzen zaion. Inork ez du agurtzen kalean. Tabernetan, ez dio inork zerbitzatzen. Ikusezina bilakatzen ari denaren beldurrarekin, psikiatra sozialarekin zita eskatzen du. Potasio igogailuan sartzen da. Bat-batean, igogailua hizketan hasten zaio.

Jateko eta edateko filmen artean

PROGRAMAZIOA

IGANDEA 11/22

17:15 LEKEITIOKO EUSKAL ZINEBILERA FESTIBALAREN AURTENGO SARITUAK
Iraupena 54'



Euskarazko zinemaldien arteko partaidetza segitzen dugu aurten ere! Urrian Zinegineko programazioko Muskuilu eta Puah! hedatu ziren Lekeition, eta Zinegin garaian, Lekeitioko lehiaketaren irabazleak hedatuko dira.
Biba Lekeitioko Zinebilera!

HOGEITABAT (Elene Mengyu Larrinaga): Zuzendaritza Hoberenaren Saria

Geratzen den hori (Aitor Gamatxo Zabala): Benito Antsola Gazte Saria, Ikuslearen Saria, Film Hoberenaren Saria.

Mintzo zen (Aitor Arruti, Izaro Arruti): Gidoi Hoberenaren Saria, Adineko Epaimahaiaren Saria




18:30 NORTARZÜNAK (Seriaren lehen atala)

Zuzendaritza: Elsa Oliarj Ines
Iraupena: 50’
Euskarazko azpitituluekin
Zuzendariaren presentzian

Sinopsia
Haur-eskolan sartu zirenetik eskolako azken egunera arte, Elsa Oliarj-Inesek zortzi urtez jarraitu eta filmatu ditu jolastokian elkarrekin hazten diren hemeretzi haurrek bizi dituzten jolasak, negarrak, adiskidetasunak eta gatazkak. Lehan atalaren hedapena.

PROGRAMAZIOA

ASTELEHENA 11/23



19:30 MASPALOMAS

Zuzendaritza: Jose Mari Goenaga, Aitor Arregi
Iraupena: 120’
Euskarazko azpitituluekin

Sinopsia

Bikotearekin hautsi ondoren, Vicente (76) gustuko duen bizimodua darama Maspalomasen: eguzkia, parranda eta gozamena dira bere eguneroko jardunak. Baina istripu batek Donostiara itzultzera behartuko du eta han aspaldi abandonatu zuen alabarekin elkartu beharko du. Vicentek zahar-etxe batean bizi beharko du eta bertan armairura itzultzera bultzatua sentituko da, konpondutzat zuen bere buruaren alde bat ezkutatuz. Egoera berri horretan, galdera bat nagusituko da: garaiz al dago Vicente besteekin –eta bere buruarekin– bakeak egiteko?

PREZIOAK ETA ORDUTEGIA

Sartzeak aitzinetik salgai izanen dira Eihartzea elkarteko Helloassoren bidez.

Ordutegiak

Filmak	Prezioa	Irau.	11/19	11/21	11/22	11/23
FILM LABURRAK: KONDAKIZUN ZORAGARRIAK	3€	30'	19:00			
MUGURUZA FM 40 TOUR	3€	103'	20:00			
GUTUN BAT KOTTORI	3€	80'		10:00		
ZERGATIK PANPOX	3€	57'		14:00		
HAUR TTIPI ETA HANDIEN SAIOA	3€	45'			9:30	
MUNSTROAK SORTZEN DIRENEAN	3€	80'			10:45	
FILM LABURRAK: HUMOREZKO SELEKZIOA	3€	36'			16:00	
ZINEBILERAKO SARIDUNAK	3€	54'			17:15	
NORTARZÜNAK	3€	50'			18:30	
MASPALOMAS	3€	120'				19:30

Ekimen bereziak	Prezioa	11/18	11/19	11/20	11/21	11/22
HARRI KANTA Erakusketa interaktiboa	Urririk	18:30 - 20:30	16:00 - 20:00	16:00 - 20:00	10:00 - 15:00 18:00 - 20:00	12:00 - 19:00
ZINE BERTSO SAIOA	Urririk			19:30		
Kontzertuak Ttattola Gaztetxean BLU KOLECTIVE, SU LAMINA, PETRA COMETE	Urririk				20:30	

Lekuak

HARITZ BARNE ZINEMA
Haritz Barne karrika, 6

TTATTOLA GAZTETXEA
Harana Parkinga

CHORIBIT GELA
St Jean plaza

Jateko eta edateko zinemako ostatuan

Tokiak Erreserbatzeko

Web: Eihartzea elkarteko Helloassotik

Haritz Barne zineman, Zinegin denboran